

ALDI BATERAKO EGONALDIA EGOITZAN, ZAINZAILEAK ATSEDEN HAR DEZAN

[Garrantzitsua](#)

Preview
modal-

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Pertsona 18+ buru gaixotasuna > Zaintzaileen atsedena errazteko zerbitzuak

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa.](#)

Norentzat

Buru gaixotasuna duen pertsonaren **zaintzaile nagusia eta senidea.**

Kostua

Koordinaketaren menpe dagoen zerbitzua, onuradunaren egoera ekonomikoaren eta zerbitzuaren erabileraren arabera.

Baldintzak

Zaintzaile nagusia izatea.

Atsedena hartzeko beharra.

Erroldatzea (**12 hilabete**)

Zertan datza?

Zaintzaile senideek beren etxeetan artatu ohi dituzten gaixotasun mentala duten pertsonen aldi

baterako egonaldia egoitza-zentroetan ([2.5 fitxa](#)). Zaintzailea bere eginkizuna aldi baterako betetzea eragozten dion egoera batean dagoenean aktibatzen da zerbitzua (bajan dago, atsedeen hartu behar du, oporretara joan behar du...).

Norentzat?

Buru gaixotasuna duen pertsonaren **zaintzaile nagusia eta senidea**.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Koordinaketaren menpe dagoen zerbitzua da, hau da, erabiltzaileak zerbitzuaren zati bat ordaintzen du bere egoera ekonomikoaren eta zerbitzua erabiltzeko modalitatearen arabera.

Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

Gaixotasun mentala duen pertsona eta zaintzailea etxebizitza berean eta dagokion lurralde historikoko **udalerrri batean errolatuta egotea**.

Etxebizitza berean **errolatuta egotea 12 hilabetez**.

Atsedeen hartzeko egonaldia egingo den egoitza-zerbitzuan **sartzeko baldintzak betetzea**.

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerrri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

Informazio gehiago:

- [Aldi baterako egonaldia egoitzan, zaintzaileak atsedeen hartzean Araban](#)
- [Aldi baterako egonaldia egoitzan, zaintzaileak atsedeen hartzean Bizkaian](#)
- [Aldi baterako egonaldia egoitzan, zaintzaileak atsedeen hartzean Gipuzkoan](#)

[Kontsultatu informazio osoa](#)